

altza

Bideo bitarteko aldizkaria

berpiztu elkarteak aurkeztu berri du auzoan «Plazara» Bideo Tailerra. Euskarri bezala bideoa, hau da, euskarri magnetikoa erabilita Esteban, Toño eta Elenak Altzako hainbat elkartek sortutako informazioa antolatuz, aldizkari bat sortzeko asmoa dute. Altzan egindako ikerketa batek dioenez, auzoko elkarte eta ekimenen informazioa ez da auzokideengana behar bezala iristen. Bideo-aldizkari honen bitartez, 35 minutuz, ahalik eta informazio zabalena eman nahi zaie altzatarrei.

Plaza bideo-aldizkaria arlo kulturean arituko da lanean tresna dinamizatzaile gisa. Euskarak ere garrantzi berezia izango du Plaza bideo-aldizkari berrian.

Bideo-aldizkaria bi hilabetero kaleratuko da, eta hasiera batean elkarte eta giza agente garrantzitsuenen artean banatuko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 399695 telefonora (Esteban edo Alvaro).

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ



Hurbiltasuna dute helburu, hori baita jendeari gero eta gehiago inetersatzen zaiona, alegia, bere inguru hurbilean gertatzen dena.

herrera

Burgosa Axiskloekin

axisklo Atsedeen Taldeak aurtengo udalekuetarako plana jarri du martxan. Duela 3 urtez geroztik egin duten bezala, aurtengoan ere Burgosko Barbadillo de Herberos herrian Donostiako Udalak duen etxera abiatuko dira. Bertan, uztailaren 1etik 14era izango dira Herrera eta inguruko 10-14 urte bitarteko haurrak. Jokuak, heziketa-dinamika berriak, dantzak

eta «Alitxu»k zuzenean interpretatutako musika saioak izango dira protagonista nagusiak, haurren beste zenbait eginbehar aliatu gabe, ohea egin, diruaren administrazio egokia eraman, sukaldeko lanak egin...

Urtero bezala, Axisklok merke ateratu dituen udalekuak. 20.000 pezetaren truke haur bakoitzak 15 egun igaro ahal izango ditu etxetik kanpo, eta

kontutan izanik Donostiako Udalak lehengo urtean haur bakoitzeko 500 pezeta kobratu zituela alokairu gisa, ez dago batere gaizki Axisklok ipinitako prezioa.

Izena emateko epea ekainaren 8ra arte izango da, dena den, informazio gehiago nahi izanez gero asteazkeneko Itzalako lokaletan izaten dira Axisklo atsedeen taldeko begiraleak.

ITURRITXO

Taberna Jatetxea

Gosariak • Bazkari eta Afariak
Giro ona

ATEGORRIETA - Tfnoa.: 28 70 19



San Carlos Borromeo

Kontsumo Kooperatiba

KONFEKZIOA - LENTZERIA - UMETXOAK
Oartzun, 7 • Tfnoa.: 28 45 47

.....
JOSTAILUDENDA

Errenderi, 10 • Tfnoa.: 27 61 54